

Euskal AEko administrazio publikoetako zentroen % 73,4k zibersegurtasuneko jarduerak egiten ditu

Administrazio publikoko langileen % 6,1ek telelana egiten dute, eta enpresetako langileen % 11k

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Administrazio publikoetan sare sozialen erabilera oso hedatuta dago, baita segurtasun digitaleko jarduerak egitea ere: zentroen % 85,6k sare sozialak erabiltzen dituzte eta % 73,4k zibersegurtasun-jardueretan parte hartzen dute..

Administrazio publikoen sektorearen eta enpresa guztien arteko azterketa konparatiboa, agerian geratzen da administrazioetan enpresetan baino hedatuago dagoela 4.0 industria. Izatez, administrazio publikoan, sare sozialen enpresa-helburuetarako erabilera % 85,6koa da establezimendu guztien osotasunerako, eta enpresen kasuan, berriz, % 53,8koa. Aldea are handiagoa da Gauzen Interneti erreparatuta (IoT). Administrazioaren establezimendu guztien % 45,8ra iristen da, eta enpresen sektorearen % 14,3ra; zibersegurtasun-jardueretan ere ehunekoak oso bestelakoak dira, administrazio publikoaren % 73,4tik enpresen % 24,8ra; eta Big Dataren erabileran % 41,6tik % 12,2ra. Bi sektoreen arteko aldeak ere agerikoak dira gutxien ezarritako teknologietan, hala nola adimen artifizialeko sistemen erabileran (% 29,5 administrazioan, % 8,7 enpresetan), 3D inprimagailuen erabileran (% 10,6 eta % 2,9, hurrenez hurren) eta robotikaren erabileran (% 9,7 eta % 2,6, hurrenez hurren).

10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen azpimultzoan, nahiz eta bi sektoreek establezimenduen osotasunean baino maila handiagoak izan, administrazioan ezarpena nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du

Euskal AEko administrazio publikoaren eta enpresa-sektorearen establezimenduetako 4.0 industriaren adierazleak, enplegu- geruzaren arabera (%). 2022-2025

	Herri-administrazioa				Enpresa-sektorea			
	2022	2023	2024	2025	2022	2023	2024	2025
Sare sozialen erabilera enpresa-helburuetarako	83,9	85,5	84,1	85,6	55,2	53,4	53,8	53,8
Zerbitzu informatikoen erabilera "hodelan"	46,0	58,4	61,9	64,0	26,6	31,0	31,7	32,4
Bezeroentzako aplikazio mugikorrak	.	48,5	50,3	50,7	:	14,8	15,1	14,9
Gauzen Interneten erabilera (IoT)	37,7	44,2	43,8	45,8	13,6	12,6	13,7	14,3
Zibersegurtasuneko jarduerak	59,5	66,4	70,9	73,4	20,8	22,7	25,4	24,8
Makrodatuen analisi (Big Data)	36,4	37,9	40,5	41,6	12,2	12,2	12,5	12,2
Adimen artifizialeko sistemen erabilera	17,8	17,1	29,1	29,5	4,9	5,9	7,4	8,7
3D inprimagailuen erabilera	9,7	10,4	10,4	10,6	2,6	2,4	2,9	2,9
Robotikaren erabilera	6,2	6,6	9,0	9,7	2,3	2,6	2,6	2,6

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Batez beste, **administrazio publikoko enplegatuen** % 95,4k informazioaren eta komunikazioaren teknologietako (IKT) sistemak erabiltzen dituzte, eta, egiaztatu denez, % 8,2 espezialistak dira IKT sistemetan. Era berean, enplegatu guztien herenek baino gehiagok (% 40,7k) urruneko konexioa dute erabilera profesionaleko gailu eramangarri baten bidez.

Bestalde, administrazioan, zentroen tamainak ez du alde adierazgarririk eragiten IKT teknologiak erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoan.

Langile horiek sexuaren arabera aztertuz gero, IKT sistemetako espezialistetan gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da: gizonen % 59,9 eta emakumeen % 40,1. Hala ere, bai IKTen erabilerari dagokionez, bai urruneko konexioari edo telelanari dagokionez, emakumeen ehunekoa % 60 ingurukoa da, eta gizonen kasuan, berriz, % 40 ingurukoa.

Langileak sexuaren arabera aztertzean, aditzera eman behar da IKT sistemetako espezialisten taldean soilik daudela emakume baino (% 40,6) gizon gehiago (% 59,4). Aldiz, IKTak gehiago erabiltzen dituzte emakumeek (% 62,5) gizonek baino (% 37,5). Urruneko konexioaren erabilerari eta telelanaren gozamenari dagokienez ere, emakumeak gehiengoa dira: % 60 inguru, gizonen % 40ren aldean.

Nolanahi ere, jarduera kontuan hartuta, alde handiagoak ikus daitezke. Adierazgarrienak aipatzearen, IKTen erabilerari erabatekoa da osasun-jardueretan, eta oso handia bada ere, konparatiboki txikiagoa da gizarte, kultura eta bestelako jardueretan (% 84,8). Era berean, IKT sistemetako espezialistak askoz ohikoagoak dira administrazio publikoan eta defentsan (% 12,5) gainerako jardueretan baino, eta hezkuntza eta administrazioaren beste jarduera batzuk (% 10,7 biak) dira sailkapeneko bigarrenak. Hain zuzen, hezkuntzan agertzen da gehien urruneko konexioa enplegatuen artean (% 71,2). Azkenik, telelangileen proportziorik handienak administrazioaren beste jarduera batzuetan (% 19,0) eta administrazio publikoan eta defentsan (% 7,4) agertzen dira.

Administrazio publikoaren Enpleguak IKTei dagokienez, lurralde historikoaren eta jardura-adarraren arabera (%). 2025

	IKT erabiltzaileak			IKT espezialistak			Enpleguak urruneko konexioarekin			Telelangileak		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Euskal AE	95,4	62,5	37,5	8,2	40,6	59,4	40,7	60,6	39,4	6,1	60,9	39,1
Araba/Álava	91,0	62,7	37,3	5,4	40,8	59,2	35,8	62,2	37,8	5,0	67,3	32,7
Bizkaia	97,4	62,5	37,5	10,3	40,9	59,1	42,1	61,7	38,3	6,7	56,7	43,3
Gipuzkoa	95,1	62,4	37,6	6,8	40,0	60,0	41,9	57,8	42,2	5,8	62,0	38,0
Jardura-adarra												
Herri administrazioa eta defentsa	96,6	50,6	49,4	12,5	42,6	57,4	39,9	47,5	52,5	7,4	65,6	34,4
Hezkuntza	98,2	64,3	35,7	10,7	40,3	59,7	71,2	60,6	39,4	2,2	51,9	48,1
Osasun jardura	100,0	79,9	20,1	1,4	44,1	55,9	15,3	79,6	20,4	0,2	60,4	39,6
Sozial, olgetazkoak, kulturalak eta bestelako jarduerak	84,8	69,1	30,9	7,3	40,3	59,7	25,4	62,9	37,1	5,2	73,0	27,0
Administrazioaren beste jardura batzuk	87,8	45,6	54,4	10,7	31,4	68,6	53,8	46,0	54,0	19,0	52,5	47,5

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Bestalde, administrazio publikoko zentro guztietan IKT sistemak erabiltzen dituzten langileak daude. Gainera, % 68,9k IKT sistemetako espezialistak dituzte, eta % 83,9k, berriz, lantokirako urruneko sarbidea duten langileak. Arestian adierazi denez, establezimenduen % 39,2k lanaldiaren erdia gutxienez telelanean diharduten langileak dituzte.

Enplegatu publikoen % 6,1ek telelana egiten dute 2025ean, ehuneko hori % 11,0ra igotzen da enpresen kasuan

Bestalde, 2025ean administrazio publikoko zentroen % 39,2k telelanean dituzte langile batzuk. Era berean, 2025ean, langile publikoen % 6,1ek bere lantokitik kanpo lan egiten dute **erregulartasunez lanaldiaren erdia gutxienez**, eta, horretarako, sare telematikoa erabiltzen dituzte IKT sistemekin konektatzeko; hori dela eta, telelangiletzat har daitezke. Enpresen kasuan, ehuneko hori bikoiztu egiten da, eta % 11raino.

Kopuru horiek, 2021ean pandemia betean lortutako maximoak baino pixka bat txikiagoak diren arren (zentroen % 44k telelana egiten zuten langileak zituzten eta langileen % 11,6k telelana egiten zuten), urte horren aurreko erregistroak baino askoz handiagoak dira, eta urte horretatik aurrera egonkor samar mantentzen dira.

Telelana Euskal AEko Administrazio Publikoan, jarduera-adarraren arabera (%). 2018-2025

	2018		2019		2020		2021		2022		2023		2024		2025	
	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua
Guztira	15,1	1,4	15,1	1,6	26,1	2,1	44,0	11,6	36,7	5,4	40,0	6,6	40,3	5,3	39,2	6,1
Herri administrazioa eta defentsa	24,5	1,2	20,3	1,6	33,6	2,7	63,1	16,5	51,9	7,4	63,1	12,0	56,7	7,4	57,0	7,4
Hezkuntza	10,2	1,7	8,8	1,4	16,0	2,1	17,7	5,4	12,9	2,9	13,3	3,4	16,7	2,7	15,7	2,2
Osasun jarduera	15,2	0,7	28,2	0,7	59,7	0,7	23,7	5,8	4,6	0,3	2,7	0,3	4,5	0,4	3,2	0,2
Sozial, olgetazkoak, kulturalak eta bestelako jarduerak	9,1	1,5	8,2	0,9	18,2	1,1	42,7	9,9	48,8	4,7	49,2	8,8	39,5	2,4	37,3	5,2
Administrazioaren beste jarduera batzuk	11,5	2,6	14,6	4,4	15,8	4,5	66,0	23,4	54,5	15,4	55,0	11,8	66,5	15,6	62,8	19,0

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Euskal AEko enpresen % 97,7k tramite elektronikoak egiten dituzte administrazio publikoarekin

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek egiten duten e-Administrazioaren erabilerrari erreparatuta, enpresen % 97,7k tramite elektronikoak egin dituzte administrazio publikoarekin 2025. urtean, bai zuzenean, bai hirugarrenen bitartez (aholkularitza-bulegoak eta abar), bai bi prozedura horien bidez. Zehazki, enpresen % 62,1ek zuzenean egin dute tramiteren bat, eta % 80,5ek hirugarrenen bitartez.


10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen % 98,7k tramite elektronikoak egiten dituzte. Enpresa horiek tamaina handikoak izateagatik baliabide gehiago dituztenez gero, tramiteak batez ere zuzenean egiten dituzte (% 88,7k). Tramiteak hirugarrenen bitartez egiten dituzte % 66k.

Egiten dituzten tramite elektroniko nagusien helburuak honako hauek dira: askotariko informazioa lortzea (% 75,9), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 72,1), betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 65,8) eta administrazio-prozedurak modu guztiz elektronikoan tramitatzea (% 61,3). Halaber, bide hori maiz erabiltzen da langileen gizarte-kotizazioak aitortzeko (% 66,2) eta zenbait zerga mota betetzeko: BEZa (% 82,0) eta Sozietateen gaineko Zerga (% 59,3) nagusiki.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek tramite elektroniko horiek zer administrazioarekin egiten dituzten aztertuz gero, foru-aldundiak (% 89,3) eta Administrazio Zentrala (% 74,4) nabarmentzen dira. Ehuneko horietan, eragin handia dute bi administrazioek zerga nagusietan dituzten eskumenek. Haien atzetik, Eusko Jaurlaritza (% 66,5), tokiko erakundeak (% 41,0) eta Europar Batasuna eta beste batzuk (% 11,7) agertzen dira.

10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan, nabarmen txikiagoa da Eusko Jaurlaritzaren (% 85,3), foru-aldundien (% 90,5) eta administrazio zentralaren (% 89,4) arteko aldea. Halaber, gora egin du nabarmen tokiko erakundeekin (% 58,8) eta Europar Batasunarekin eta beste batzuekin (% 26,0) e-Administrazioa erabiltzen duten enpresen proportzioak.

Administrazio publikoarekiko izapideak era elektronikoan egiten dituzten euskal enpresak (%). 2025



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Ekipamenduen eskuragarritasuna eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera handiagoak dira administrazioan enpresetan baino

2025. urtean, administrazio publikoko zentroen % 99,6k web-orria dute, propioa edo parte diren entitatearena. 10 enplegatu edo gehiagoko zentroetan % 100 dira. Enpresen sektorearen kasuan, ehunekoa % 57,1era mugatzen da establezimendu guztietarako, eta, hurbilago, % 92,9ra hamar langile edo gehiagoko enpresetarako.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko ia zentro guztiek erabiltzen dituzte oinarritzko IKT ekipamenduak 2025ean. Web-orriaz gain, zentro publiko guztiek ordenagailua eta Interneterako konexioa dute.

Enpresen sektorearekin alderatuta, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) ezarpenaren ehunekoak handiagoak dira administrazio publikoen zentroetan. Web-orriari dagokionez, 42 portzentaje-puntuko aldea dago administrazioaren alde (% 57,1 enpresen sektorean).

2025. urtean, IKT ekipamenduak erabiltzen dituzten enplegatu publikoen proportzioa ere oso handia da. Zehazki, langile publikoen % 93,7k ordenagailua erabiltzen dute, eta % 92,2k Interneterako sarbidea dute. Enpresen sektorean, langileen ehunekoak txikiagoak dira: % 77,6 eta % 74,5, hurrenez hurren.

Aditzera eman behar da ekipamenduetan zein langileen erabileran agertutako ehuneko handi horiek enplegu-maila guztietan erregistratu direla. Hortaz, administrazio publikoan zentroen tamainak ia ez du eraginik.

Gainera, zentro gehienek (% 99,9k) segurtasun informatikoko neurriren bat hartu dute, hala nola softwarea eguneratzea (% 99,7), pasahitz seguruak ezartzea (% 99,5) eta kanpoko backup-ak erabiltzea (% 90,2).

IKT ekipamenduak eta erabilera maila Euskal AEko administrazio publikoaren establezimenduetan (%). 2025

	Ordenagailu pertsonala		Internet		Webgunea	Datutruke elektronikoa (EDI)
	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald	% establ. ald
Guztira	100,0	93,7	100,0	92,2	99,6	86,2
Herri administrazioa eta defentsa	100,0	93,6	100,0	93,6	99,6	95,7
Hezkuntza	100,0	97,8	100,0	97,6	100,0	63,2
Osasun jarduerak	100,0	98,0	100,0	97,6	100,0	98,9
Sozial, olgetazkoak, kulturalak eta bestelako jarduerak	100,0	83,8	100,0	79,0	100,0	87,4
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	100,0	86,6	100,0	81,1	98,8	93,7

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak garrantzi handia ematen dio web-orriaren bidez Interneten presentzia izateari, zentroen % 99,6k baitute web-orria, propioa edo parte diren entitatearena. 10 enplegatu edo gehiagoko zentroen % 100ek dute. Enpresen sektorearen kasuan, establezimenduen % 57,1ek baino ez dute web-orria. 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen kasuan, berriz, % 92,9k dute.

Web-orri horietan, erakundeari berari buruzko informazio orokorra aurki daiteke (web-orrien % 99,8tan). Horrez gain, % 84,8k datu konfidentzialen pribatutasun/babes-deklarazioa dute, % 76,0k enpresaren hedabide sozialetako (Facebook, Twitter...) profiletarako estekak dituzte, % 71,4k enplegu-eskaintzei buruzko informazioa dute, eta % 60,4k produktuen katalogoak edo prezioen zerrendak, besteak beste. Enpresen sektorearekin alderatuta, administrazioak garrantzi handiagoa ematen dio webgunean lan-eskaintzei buruzko informazioa agertzeari (% 71,4 eta enpresen webguneetan, berriz, % 28,5) eta desgaitasuna duten pertsonen irigarritasunari (administrazioaren webguneetan % 49,3; enpresen webguneetan, berriz, % 21,2).

Euskal AEko administrazio publikoaren webgunea duten establezimenduetako hizkuntzak (%). 2025

	Webgunea	Webguneko hizkuntza			
		Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Besteak
Establezimenduak guztira	99,6	97,9	99,3	30,1	23,3
Iurralde historikoa					
Araba/Álava	99,1	98,2	100,0	20,7	15,1
Bizkaia	99,8	96,6	99,5	28,0	17,5
Gipuzkoa	99,7	99,5	98,7	37,7	35,1
Jarduerak-adarra					
Herri administrazioa eta defentsa	99,6	98,3	100,0	40,4	35,5
Hezkuntza	100,0	99,5	97,3	5,5	1,2
Osasun jarduerak	100,0	99,8	100,0	1,6	3,8
Sozial, olgetazkoak, kulturalak eta bestelako jarduerak	100,0	97,6	100,0	21,3	13,6
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	98,8	94,6	99,9	66,6	50,1

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tfno. 945 01 75 62